



**MARIA CRISTINA HOTELA**  
A MAILA**OKENDO, 1**  
OKENDO 1, KAMINO 2 ETA ARGENTINAR ERREPUBLIKA 4

Egilea eta data: Charles Meuwes, 1909

**Deskribapena**

Victoria Eugenia antzokiak multzo bereizezina osatzen du hiri monumentalean. Proiektua Charles Meuwes arkitektoarena da (Madrilgo eta Parisko Ritz hotelaren egilea ere). Udalak 1909ko otsailan onartu zuen. Obrak Francisco Urcolak zuzendu zituen aurrerantzean. Okendoko lorategien bidez antzokitik bereizita, eraikinaren "L" moduko oinplano interesgarria zabalgunerantz irekitako patio ireki baten inguruan antolatu zen. Jatorrizko "L"-aren besoak lorategietarantz eta ibairantz orientatuta daude. Hala, haren muturretako batek Santa Katalinako lorategietarantz begiratzen duen buru bat osatzen du. 1949an, Manuel Urcola arkitektoak gorputz bat erantsi zion, gainerakoaren estilo beraren barruan. Horrek oinplanoari "U" forma ematen dio, lorategiaren antolamendua hautsi gabe. Hotela oin hauek osatzen dute: erdisotoa, behe oina (kanpoko ingurura orientatutako eta erdiguneak zerbitzatutako aretoek, eta patiora orientatutako galeria batek hartzen dute), geletara zuzendutako lau solairu eta duela gutxi egindako zaharberritze lanaren arabera mantsardatutako estalkipeko oina. Eraikina lorategietatik bereizten duen eta, era berean, behe oinerako terraza bat eratzen duen inguruko plataforma nabarmentzen da. Eraikinak eraikuntza kalitate handia du hareharrizko fatxada harlanduan, kareletan eta balastradetan, eta marmolezko zoladuretan. Dekorazioan xalotasuna erakusten du (esaterako, Daniel Zuloagaren zeramiketean), lengoia soil eta dotoreaz, garai hartako estilo frantsesaren klasizismo eklektikoaren barruan.

**Babes erregimena**

- \* Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- \* Berariazko erregimena:  
"Okendo plaza" multzo monumentalean sartzearen ondoriozkoa. Halakotzat deklaraturako dago urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez (horren bitartez, era berean, kultura ondasun kalifikatutzat deklaraturako dago, multzo monumentalaren kategoriaz, Santiago bidea).